

## SAGUBA.<sup>1</sup>



Sagu bat zulotikan  
goiz batez atera,  
eta joan zan segiran  
bere sukaldera;  
zupatzen asi ere  
joanikan aldera,  
billatzen zuben plater,  
pazi ta padera.

Ontan ikusi zuben  
eltze bat betia,  
gañian guri guri  
zeukala koipia;  
eta begira gabe  
sendo zeukan bia,  
salta zuben bertara....  
¡bañan zér kolpia!

Bi erdi egiñikan  
koipia batetan,  
arkitu zuben bere  
burua saldetan;  
eta eziñ irtenik  
zerabillela an,  
azkenian ito-ta  
gelditu zan bertan.

. . . . .  
Arrantzako asmoan  
zerbait nairik era,  
asko joaten dirade  
itsaso aldera;  
bañan ¿zér da gertatzen?  
askotan au bera;  
leku charra izanik  
erortzia beera.

## ARITZ BEDEINKATUA.



Jaungoikoak aritz bat  
zuben bedeinkatu,  
eta, chit lur sendoa,  
Gernikan paratu;

euskaldunak zezaten  
biyotzez maitatu,  
eta bere frutuak  
sekulan ez galdu.

(1) Fábula y composición premiadas con *mención honorífica* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1888. (Véase pág. 567 del tomo XIX.)